



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilak 16

Vitoria-Gasteiz, 16 de abril de 2024

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZA AURRERA EGITEN ARI DA HONDAMENDI-ARRISKUA MURRIZTEKO POLITIKAK 2030 AGENDAREN GARAPEN JASANGARRIAREN ESPARRUAN TXERTATZEN

- **Gaur, Gobernu Kontseiluan irizpen bat aurkeztu da Euskadin arriskua kudeatzeari eta GJHeKin eta Sendaiko Esparruarekin bat etortzeari buruz**
- **Dokumentua sailen arteko lan baten emaitza da, non Lehendakaritzak eta sei sailek parte hartu duten, etorkizunerako zazpi iradokizunekin**
- **Larrialdien eta hondamendiek mundu osoan eta pertsona bakoitzaren bizitzan duten eraginari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa da abiapuntua**
- **Irizpenak egiaztatzen du Euskadik hondamendiak prebenitzeko eta kudeatzeko azpiegitura ona duela, nazioarteko jarraibideekin bat datorrena**
- **Etorkizunari begira, sailen eta erakundeen arteko komunikazio- eta gobernantza-mekanismoek berebiziko garrantzia dute**
- **Baita prospekzioa eta berrikuntza egiten jarraitzea ere, politika publiko honen kudeaketa etengabe hobetzeko**

Gaur, Gobernu Kontseiluan aurkeztu da, aintzat har dadin, honako dokumentu hau: "Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa eta gobernantza hobetzeko eremuei eta egoerari buruzko etorkizuneko hausnarketak, hondamendi-arriskua murrizteko, prebenitzeko eta hari erantzuteko eta 2030 Agendarekin bat etortzeko".

Dokumentua Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak 2022tik bultzatu zuen sailen arteko lan-prozesu baten emaitza da. Prozesu horretan, honako sail hauek parte hartu dute: Segurtasun Sailak; Osasun Sailak; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak; eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak. Azken dokumentua egiteko etapan, koordinazioa Segurtasun Sailari eta Idazkaritzari egokitu zaie.

Prozesu horrek Eusko Jaurlaritzaren barruan hondamendien arriskuari aurrea hartzeko eta erantzuteko estrategiei eta baliabideei buruzko hausnarketa sustatu du, bai eta Hondamendien Arriskua Murrizteko Sendai Ekintza Esparruarekin (2015-2030) eta Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren hausnartzea ere.

Sendaiko Ekintza Esparrua 2015eko ekainean onartu zuten Nazio Batuek, Hondamendien Arriskua Murrizteari buruzko Munduko Konferentzian.

Hondamendien arriskua murrizteko estandar eta helburu komunak ditu. Horrela, arlo horretako nazioarteko erreferentzia-esparrua da.

Gogoeta horren abiapuntuan kokatu behar da larrialdiek eta hondamendiek mundu osoan eta pertsona bakoitzaren eguneroko bizitzan duten eraginari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa. Mundu osoan areagotu dira arrisku objektiboa eta arriskuen eta mehatxuen pertzepzio subjektiboa eta intersubjektiboa.

Arrazoiak, besteak beste, honako hauen efektuarekin eta ondorioekin daude lotuta: klima-aldaketa, suteak, deforestazioa, urbanizazio azkarra eta inbaditzailea, urpean gera daitezkeen lurzoruen okupazioa, herrialdeen arteko eta herrialde bakoitzaren barruko desberdintasun-arrakalak, bai eta krisi pandemikoaren esperientzia pertsonalarekin eta globalarekin ere.

Aurrekari eta erreferentzia horiekin, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak adituen txosten bana eskatu zuen. Dokumentazio horretan oinarrituta, sailarteko talde tematiko hori eratu zen Eusko Jaurlaritzaren barruan. Haren lanak orain aurkezten den irizpena ekarri du. Ekarpen eta orientabide multzo bat eskaintzen du, etorkizunera irekitako gogoeta gisa, hurrengo Legegintzaldian arlo horretako jarduera-plan baten oinarri izan daitezkeenak.

Irizpenak lau atal eta eranskin bat ditu. Lehenik eta behin, Hondamendien Arriskuaren Murrizketaren (Sendaiko Ekintza Esparrua) eta 2030 Agendaren arteko harremanari heltzen dio; bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak dituen tresna nagusien eta horiek GJHeekin duten loturaren deskribapena egiten du; hirugarrenik, hobetzeko esparruak identifikatzen ditu; eta, azkenik, laugarren atalak azken oharrak eta ondorioak laburbiltzen ditu. Eranskinak Sendaiko esparruaren eta 17 GJHetako bakoitzaren arteko erlazioaren eskema bat aurkezten du.

Ondorioen atalean egiaztatu da Euskal Autonomia Erkidegoak larrialdien eta hondamendien prebentziorako eta arretarako tresna ugari dituela, Sendaiko Ekintza Esparruaren ardatzekin lerrotatuta daudenak. Tresna arauemaile, estrategiko, instituzional eta gobernantza-tresna ugari daude, oinarri sendoa direnak hondamendien arriskua murrizteko euskal azpiegitura hobetzen jarraitzeko.

Ildo horretan, dokumentuak datozen urteetarako zazpi lan-ildo proposatzen ditu, etorkizunean garatzeko abiapuntu irekiak direnak:

- Oro har, esparru guztietan administrazioen arteko ahalik eta koordinaziorik handiena bultzatzea.
- Tokiko larrialdi-planen ikuskapena sustatzea, aldundiekin eta udalekin koordinatuta.
- Babes zibileko bi noranzkoko harremana areagotzea lurralde-antolamenduarekin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioekin.
- Industriaren arloko ikuskapenak areagotzea.
- Sistema informatiko integratua sortzea.

- Erakundeen arteko ezagutza zientifikoa sustatzea.
- Hondamendien arriskuari aurrea hartzeko, kudeatzeko eta erantzuteko erakundeen arteko hausnarketarako, bateratze-lanerako eta berrikuntzarako foro bat sortzea.

Zazpi iradokizun horiek premisa bera dute: eragile instituzional guztien artean ahalik eta harmonizazio onena lortzea. Ildo horretan eta etorkizunari begira, sailen eta erakundeen arteko komunikazio- eta gobernantza-mekanismoek berebiziko garrantzia hartzen dute.

Era berean, politika publiko horren kudeaketa optimizatzeko eta etengabe hobetzeko prospekzioa eta berrikuntza egiten jarraitzearen garrantzia azpimarratuta geratzen da. Hori guztia, Sendaiko Ekintza Esparruak eta 2030 Agendak eskaintzen diguten testuingurua kontuan hartuta.

Segurtasuna

ERTZAINTZAK HIRU UNIBERTSITATETAKO IKASLEEN PRAKTIKETAKO FORMAKUNTZAN LAGUNDUKO DU

- **Deustuko Unibertsitateak, Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarrak eta Errioxako Unibertsitateak Ertzaintzarekin lankidetzan jardun nahi dute horietako praktiketako ikasleak Ertzaintzarekin presta daitezen**

Gobernu Kontseiluak gaur eman du oniritzia hiru unibertsitatekin hezkuntza-arloan lankidetzaz ezartzeko hiru hitzarmen sinatzeko. Lankidetzaz horrek balioko du ikasleei prestakuntza integrala, teorikoa eta praktikoa eskaintzeko eta, era horretara, prestakuntza profesionala ziurtatzeko, haien enplegarritasuna eta laneratzeko gaitasuna hobetuz. Hitzarmen horiek jarraian adierazitako unibertsitateetako ikasleen curriculumeko praktika akademikoak arautzeko esparrua ezartzen dute.

- **Deustuko Unibertsitateko** Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea.
- **Miguel de Cervantes Unibertsitateko** Kriminologiako Gradua.
- **Errioxako Unibertsitateko** gradua edo masterra.

Akordio horiei esker, unibertsitateko ikasleek praktiketako prestakuntza Ertzaintzaren egoitzetan egin ahal izango dute, bere aholkularitzapean eta laguntzarekin, eta praktika horiek hartzeko eta tutorizatzeko programa bati jarraituz.

Hiru hitzarmen horiek, batetik aldeentzat aberasgarria eta beharrezkoa den harremana bideratuko dute, eta, bestetik, Ertzaintzak gai horietan dituen prozedurentzat eta eraginkortasunarentzat etorkizunean mesedegarriak izan litezkeen ikasketak egitea ahalbidetuko dute.

Orain dela hainbat urtetatik, Segurtasun Sailak lankidetzan dihardu Euskadiko eta Estatuko hainbat unibertsitatekin. Hiru hitzarmen horiek 4 urteko indarraldia izango dute, eta beste lau urtez luzatu ahal izango dira.

Segurtasuna

ERTZAINZA ETA MICROSOFT ELKARLANEAN ARITUKO DIRA HAURREN ETA GAZTEEN EREMUAN ZIBERSEGURTASUNAREN ARLOKO SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEN

- Ertzaintzaren “*Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz*” taldea arduratzen da Euskadiko ikastetxeetan segurtasun publikoaren alderdiei buruzko sentsibilizazio-programak emateaz

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran eman du Ertzaintzaren eta Microsoft konpainia informatiko multinazionalaren arteko jarduketa-protokolo bat sinatzeko oniritzia, Ertzaintzaren “*Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz*” taldea zibersegurtasunaren arloan prestatzeko. Helburu zehatza da Euskadiko ikastetxeetako ikasleak segurtasun publikoaren hainbat alderdiri buruz sentsibilizatzeaz, informatzeaz eta kontzientziatzeaz arduratzen den prebentzio-programa horretan lan egiten duten ertzainen gaitasunak hobetzea.

Zibersegurtasunaren arloko Ertzaintzaren eta Microsoften arteko lankidetzak horrek nabarmen balioko du azken joerak Euskadira hurbiltzeko, agenteek gazteak modu seguruagoan prestatu ahal izan ditzaten ingurune digitalean beharrezkoa den autobabesean.

Protokolo horrek urtebeteko iraupena izango du, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da. Lankidetzak honako arlo hauetan garatuko da:

- ✓ **Prestakuntza eta baliabideak** partekatzea Ertzaintzako taldeei segurtasunaren arloko trebetasun teknikoak eta gaitasunak garatzen eta eguneratuta mantentzen laguntzeko.
- ✓ **Aholkularitza eta orientazioa** ematea prebentzio- eta komunikazio-programen eraginkortasuna hobetzeko moduari buruz, bai eta Ertzaintzaren eta beste erakunde batzuen arteko komunikazioa eta lankidetzak hobetzen lagundu dezaketen tresna eta teknologiei buruz ere.
- ✓ Komunitatean prebentzioa eta komunikazioa sustatzeko **ekitaldien eta jardueren antolaketan** elkarlanean jardutea.

Lana eta Enplegua

ALEGRIA-DULANTZIKO LANDA-EREMUAN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROIEKTU BAT GARATZEKO DIRULAGUNTZA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak 60.000 euroko dirulaguntza emateko baimena eman du gaur, Alegria-Dulantziko landa-eremuan enplegua sustatzeko proiektu bat abian jartzeko.

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, berretsi egin da Lautada Landa Garapeneko Elkarteari zuzeneko dirulaguntza hau emango zaiola "Lautada Ekin Erausquyn de Alegria-Dulantzi" proiektu esperimentala abian jartzeko. Ekimen eta lankidetzaren publiko-privaturako espazio bat sortzean datza, ohitura osasungarriari, ongizateari eta nutrizioari lotutako enpresa-proiektuak sustatu, bultzatu eta sendotzeko, bereziki emakumeen ekintzailtzara bideratuta. Zehazki, lantegi bat jarriko da martxan, sukalde-espazioarekin, prestakuntza-espazioarekin, erabilera anitzeko gela batekin, coworking espazio batekin eta produktuak banatzeko gune batekin.

Ekimen hau enplegua sustatzeko bide berrien barruan kokatzen da, batez ere landa-eremuetan. Legealdi honetan Lehendakariordeak zuzentzen duen Sailak ireki ditu, eta 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian eta 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoan jasota daude, trantsizio teknologiko, energetiko eta demografikoei aurre egiteko.

Dirulaguntzaren emakidadunak, Lautada Landa Garapeneko Elkartek, Arabako Lautadako eskualdeko garapen sozioekonomikoa eta bizi-baldintzak eta zerbitzuen hornidura hobetzea du helburu, eta, bereziki, sektoreek parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko bide izatea, helburu horiek betetzera bideratutako programak sustatu, egin eta gauzatzeko. Zuzeneko dirulaguntza ematea interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiengatik eta izaera bereziagatik ematen da.

Lana eta Enplegua

LAN ETA ENPLEGU SAILAK PERTSONAK GIZARTE-SUSTRITZEAREN BIDEZ GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROGRAMA AGINDU DIO SARTU TALDEARI

Lana eta Enplegu Sailak Sartu Taldeari agindu dio administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu bat, gizarte-sustraitzearen figuraren bidez. Gobernu Kontseiluak 60.000 euroko dirulaguntza emateko baimena eman du gaur

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lana eta Enpleguko sailburuak proposatuta, berretsi egin da Sartu Taldeari emandako zuzeneko dirulaguntza, erakunde horrek 2023an hasitako "W" proiektua sendotzeko. Legegintzaldi honetan Mendiak zuzentzen duen Sailean abian jarritako ekimen berritzaile hori Inklusiorako V. Euskal Planaren 2023-2024 aldirako Plan Operatiboan sartutako proiektu esperimentaletako bat da. Proiektu horren helburua da gizarteratzea eta laneratzea eta administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak erregularizatzea gizarte-sustraitzearen figuraren bitartez, atzerritarrei buruzko erregelamenduaren erreformaren ondoren irekitako aukerak aprobetxatuz. Gainera, beste helburu bat ere badu: kontratazio-premiak dituzten enpresei laguntzea, langileak hautatu, prestatu eta kontrata ditzaten.

Lanbiderekin eta Oarsoaldeko Garapen Agentziarekin lankidetzan garatutako lehen esperientzia pilotuaren ondoren, programa hori hedatu egin da, eta 2024tik aurrera Enplegu Zerbitzu Publikoaren aldizkako deialdietan txertatuko da. Zehazki, Sartu Taldea irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta gizarte-zerbitzuen, gizarteratzearen eta enpleguaren sektorean jarduten du, marjinazioaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, gizarteratzea eta laneratzea erraztuko duten aldaketak sustatuz.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK AZKEN HIRU TRANSFERENTZIEK DEKRETUAK ONARTU DITU

- **Gobernu Kontseiluak argi berdea eman die aldiriko trenbideen, atzerriko unibertsitate tituluaren homologazio eta parekatzearen eta autonomia pertsonalaren fasean nazioarteko babesaren onuradunak hartzeko sistemaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko Dekretu proiektuei**
- **Estatuaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioak berresten dituzten hiru Dekretuak onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea baino ez da geratzen**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu aldirietako trenbideen, atzerriko unibertsitate tituluaren homologazio eta parekatzearen eta autonomia pertsonalaren fasean nazioarteko babesa duten onuradunen harrera sistemaren arloetan eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkiola ziurtatzen duten Dekretu proiektuak. Hiru eskualdaketak martxoaren 11n adostu ziren Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoan. Dekretuak apirilaren 19an sartuko dira indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean aldi berean argitaratzen direnean.

Aldiriko trenak eskualdatzearen ondorioz, Euskadik kudeatuko ditu Bizkaian eta Gipuzkoan dauden aldiriko trenen zerbitzuak. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu transferitutako zerbitzuak arautzea, planifikatzea, kudeatzea, koordinatzea eta ikuskatzea, bai eta horien gaineko tarifa-ahalmena, ordutegiak eta maiztasunak ere.

Zerbitzu horrek Bilboko eta Donostiako aldirietako guneak hartzen ditu, eta, gainera, EAEk Araban Araia eta Gasteiz artean eta Gasteiz eta Manzanos Erribera Beitia artean aldiriko zerbitzu berriak izendatzeko aukera jasotzen du. Araban aldiriko zerbitzuak egungo trenbidearen gainean ezarriko lirateke, eta horrek lotura hobea ahalbidetuko lituzke Arabako Lautadan eta Añanako Kuadrillan. Halaber, Bilbo eta Karrantza arteko aldiriko zerbitzu berri bat ere izendatu ahal izango du.

Gainera, akordioak Bilboko portura sartzeko lineen transferentziak aipatzen ditu, etorkizunean Hegoaldeko Trenbide Saihesbideak ordezkatzeko dituenak (gaur egun plangintza-fasean dago).

Aldiriko trenak transferitzeko akordioaren arabera, Euskadi Estatuaren posizioan subrogatuko da 2027ko abendura arte Renfe Viajeros operadorearekin duen

kontratuan, hori baita eskualdatzen diren aldirietako zerbitzuen enpresa operadorea.

Transferentziaren balorazio ekonomikoa egiteko, Ekonomia Itunaren metodologia erabili da; horrela, Kupoan deskontatu beharreko zenbatekoa 92,7 milioi eurokoa izango litzateke.

Akordioak, halaber, ADIFen azpiegituretan inbertitzeko plan bat abian jartzea jasotzen du, gabeziei aurre egiteko eta aldiriko zerbitzuen eskaintzan eragina duten azpiegitura batzuen egoera hobetzeko. Gutxi gorabehera 400 milioi euroko 100 jarduketa inguru aurreikusten dira.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta dauden pertsonen atzerrian lortutako goi-mailako hezkuntza tituluen homologazio eskaerei edo baliokidetasun adierazpenei buruzko funtzioak. Akordioa 2024ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean.

Homologazioak esan nahi du Estatuko tituluek dituzten ondorio berak izango dituztela, kasuan kasuko lanbide tituludunean jarduteko gaitzeko. Euskadi izango da eginkizun horiek kudeatuko dituen autonomia erkidego bakarra. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izango du homologazioa eta baliokidetasuna aitortzeko eskumena.

Gobernu Kontseiluak onartutako hirugarren Dekretuak gizarte laguntzaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari heltzen dio, nazioarteko babesaren onuradun izaera aitortuta duten eta sistema horretan sartzea eskatu duten pertsonen autonomia fasean. Transferentzia horren bidez, autonomia erkidegoak bere gain hartzen du pertsona horiei harrera egiteko prozesuaren kudeaketa, eta pertsona horiek hartzen dituen gizartearen erabat integratzeko ezagutzak eta trebetasunak sendotzen laguntzen zaie.

Nazioarteko babesaren izaera lortu duten pertsonen autonomia faseak gehienez ere sei hilabeteko iraupena du. Horrela, denbora tarte horretan, enplegurako prestakuntza jasotzeko laguntza ematen zaie, etxebizitza bilatzen laguntzen zaie eta laneratzeko jarduerak errazten zaizkie, besteak beste.

Balorazio ekonomikoa egiteko Ekonomia Itunaren metodologia erabili da; horrela, Kupertik kendu beharreko zenbatekoa 2,4 milioi eurokoa izango litzateke. Transferentzia hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango da eraginkorra.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKADIKO FUNDAZIOAK BPGREN %1 DIRA ETA 15.000 PERTSONA BAINO GEHIAGORI EMATEN DIETE LANA

- EAEn 479 fundazio aktibo daude 2023ko amaieran, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren txosten baten arabera
- Euskadiko fundazioen sektorea gizarteari finantzazio publikoko euro bakoitzeko 2,71 euro itzultzeko gai da merkatu eragiketen bidez
- Fundazioen diru sarrera publikoen erdia baino gehiago Eusko Jaurlaritzatik dator
- Euskal fundazioek 7.500 milioi eurotik gorako ondare garbia dute, eta 1.100 milioi euro baino gehiago bideratzen dituzte fundazio helburuetara
- Balio erantsiko 896 milioi euro inguru sortzen dituzte

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak 479 fundazio aktibo erroldatu ditu bere erregistroetan. Irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, eta hainbat arlotan jarduten dute, hala nola hezkuntzan, egoitzetan eta gizarte zerbitzuetan, garapenerako lankidetzan, kultura eta museoetan, teknologietan eta ikerketan... Horiek guztiek inpaktu sozial eta ekonomiko handia sortzen dute, eta oso modu desberdinean sortzen dute balioa: izan fundazio-museo bat bisitatzen duen pertsona bati, dela desgaitasuna duten pertsonen lan aukeraren bidez, dela administrazioetan aurrezteagatik droga-mendekoak birgizarteratzeagatik, adibide batzuk aipatzearen.

Euskadin, fundazioak Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 1,04 dira, eta 15.000 pertsona baino gehiagori ematen diete zuzeneko lana. Hala islatzen du Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak egindako azterlan batek, zeinak erakunde horien eragina aztertzen duen. Gobernu Kontseiluan ikusi den txostenak kontuak aurkeztu dituzten fundazioen egitura, ezaugarriak eta jarduerarekin lotutako datuak jasotzen ditu, eta adierazten du euskal fundazioek balio erantsiko 896 milioi euro baino gehiago sortzen lagundu zutela 2022an.

Eragin ekonomikoa

Merkatuko balioa eta enplegua sortzeari dagokionez, fundazioek eragin handia dute euskal ekonomian. 7.500 milioi eurotik gorako ondare garbia dute eta 2022ko ekitaldian 1.100 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte fundazio-helburuetara. Xede horietara bideratutako per capita gastua 503 eurokoa da, eta sektorea gai da gizarteari itzultzeko, merkatuko eragiketen bidez, 2,71 euro finantzaketa publikoko euro bakoitzeko.

Fundazioek 1.447 milioi euroko diru sarrerak sortu dituzte, %57 finantzaketa pribatutik eta gainerako jatorri publikotik. Termino nominaletan, inoizko diru

sarrera kopururik onena da hori. Fundazioen finantzaketa pribatua diru sarrera finantzarioetatik, herentzietatik, dohaintza pribatuetatik, erabiltzaileen kuotetatik eta zerbitzuak emateagatik edo produktuak saltzeagatik dator. Bestalde, dirulaguntza publikoek interes orokorreko helburuetarako balio behar dute, eta, horregatik, administrazio publikoek laguntzak ematen dizkiete fundazioek hainbat arlotan egiten dituzten zerbitzuei, hala nola zaharren egoitzetan, ikerkuntzan, museoetan eta kultura ondarean.

Fundazio gehienak mikroentitateak dira eta 300.000 eurotik beherako urteko gastua dute guztira. Hauek fundazioen ia erdia dira eta, aitzitik, handiak edo oso handiak (5 eta 25 milioi euro bitarteko urteko gastu aurrekontua dutenak), %11 dira. Erakunde horien batez besteko antzinatasuna 25 urtekoa da, eta adinekoen egoitzen arlokoak dira dedikazio urte gehien metatzen dituztenak, horietako asko 50 urtetik gora.

Gizarte eragina

Eragin ekonomikoaz harago, txostenak fundazioek euskal gizarteari ematen dioten balio sozialean ere jartzen du arreta. Ildo horretan, erakunde horien kudeaketan eta lanean inplikaturako pertsonen dimentsioa nabarmentzen da elkartasunaren ageriko adierazpen gisa, bai eta interes orokorraren onerako izango diren ekintzak abian jartzeko funtsezko eginkizuna ere.

Hamar fundazioetatik seik ordaindutako langileak dituzte kontratatuta, eta helburu teknologikoekin lotutakoak dira langileen kontratazio-ehuneko handiena dutenak.

Fundazioetako ordaindutako langileen %56 emakumeak dira (%87 adinekoen egoitzen arloan), eta hori 2022an lan testuinguruan, zeinean Euskadiko Autonomia Erkidegoan lanean zeuden pertsonen artean %48 emakumeak ziren. Irabazi asmorik gabeko erakunde horietan oso garrantzitsua da boluntarioen lana, horiek gabe ezingo bailirateke helburuak bete, batez ere ordaindutako langilerik ez duten fundazioetan. Fundazioen hamarretik ia lauk boluntarioak dituzte, hau da, 5.000 baino zertxobait gehiago.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAREN HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUAK 845.854 ARRETA EMAN DITU 2023AN

- **Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren txosten baten arabera, iaz Zuzenean zerbitzuak 300.000 pertsona baino gehiago artatu zituen bere bulegoetan**
- **Eusko Jaurlaritzak administrazio elektronikoaren ezarpenaren bilakaera ere aztertu du, iaz 1.000 zerbitzutik gorako saldoa izan baitzuen, prozedura guztiak digitalizatuta**
- **Herritarrek Zuzenean zerbitzuari buruz duten gogobetetze maila, oro har, 8,7koa da**

Zuzenean, Eusko Jaurlaritzako herritarrentzako arreta zerbitzuaren eta zerbitzu elektronikoaren ezarpenaren inguruan 2023an egindakoa jasotzen duten urteroko jarraipen eta kudeaketa txostenak partekatu ditu gaur Gobernu Kontseiluak. Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzaren bitartez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak prestatutako txostenek erakusten dutenez, joan den ekitaldian 845.854 arreta zerbitzu eskaini zitzaizkien herritarrei izapideak, komunikazioak eta dokumentu erregistroak egiteko. Halaber, zerbitzu publikoen katalogoa 1.551ra iristen dela egiaztatu du, eta horietako gehienak (1.051) prozedura guztiak digitalizatuta.

Administrazioarekin harremanetan jartzeko kanalen bidez herritarrei emandako arreta gehienak Zuzenean zerbitzuaren Bilboko, Donostiako eta Gasteizko bulegoen bidez egin ziren, orotara 305.258. Horrek esan nahi du, batez beste, 1.230 arreta presentzial eman dituela egunero. Telefono bidez, berriz, 281.231 arreta eman ziren urte osoan. Ildo beretik, euskadi.eus postontziaren eta Telegramen bidezko arretak 32.475 eta 10.140 izan dira, hurrenez hurren.

Bestalde, erregistro elektronikoroak aukera ematen du eskaerak, idazkiak edo komunikazioak euskarri elektronikoaren bidez aurkezteko EAEko Administrazio Publikoaren eremuan. Bide honetatik 26.458 sarrera erregistratu ditu. Erregistroen Interkonexio Sistemak (ESI), berriz, herritarrek Estatuko edozein administraziori zuzendutako 190.292 dokumentu erregistratu ditu.

Txostenek Eusko Jaurlaritzaren herritarren arretarako zerbitzuaren erabiltzaileen gogobetetze maila ere jasotzen dute. Eta zentzu honetan, gogobetetze maila altua agertzen dute oro har, Zuzenean zerbitzuari (hamarretik) 8,7ko balorazio orokorra ematen baitiote. Zerbitzu honek egin beharreko izapideei buruzko informazioa, izapide horiek betetzeko aholkularitza, administrazio prozedurari dagokion dokumentazioa jasotzea; eta herritarrek, enpresek eta

Administrazioarekin lotutako erakundeek emandako dokumentazioaren sarrera eta irteera erregistroa eskaintzen ditu.

Halaber, aukera ematen dio erabiltzaileari elektronikoki harremanak izateko zailtasunak dituzten pertsonen ordezkari gisa kudeaketak egiteko gaitutako funtzionario zerbitzu bat eskatzeko.

Zuzenean zerbitzuaz gain, oro har, kanal anitzeko herritarren arretan honako hauek sartzen dira: zerbitzuak eta prozedurak izapidetzeko zerbitzu digitalak; Interneteko presentzia; CAU edo zerbitzu elektronikoen erabiltzaileei arreta emateko zentroa; identifikazio eta sinadura elektronikoko zerbitzuak eta elkarreragingarritasun nodoa; eta datu publikoak irekitzea eta berrerabiltzea (Open Data). Zerbitzu horietan 11.804.699 euroko inbertsioa egin da joan den ekitaldian.

Gobernu Kontseilura bidalitako txostenak zerbitzu hauen jarraipen eta kudeaketa tresna garrantzitsuak dira, betiere herritarrei kalitatezko arreta integrala eta kanal anitzekoa ematen jarraitzeko. Horren guztiaren helburua zerbitzu publiko gero eta errazagoak, eskuragarriagoak eta eraginkorragoak eskaintzea da.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK 17 MILIOI EURO INGURU BIDERATUKO DITU ELIKADURAREN ETA BASOAREN BALIO KATEKO PRODUKTUAK ERALDATZEKO ETA MERKATURATZEKO INBERTSIOETARA

- **Lehiatu Inbertsioa programa inbertsio berriak egiten dituzten jarduneko enpresei zuzenduta dago edo enpresa berri bat irekitzera bideratuta**
- **Laguntza horien bidez, elikagaiak, basogintza eta elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak finantzatzeko dira**

Kontseiluaren azken bileran, Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiaren agindua onartu du. Agindu horren bidez, nekazaritza-, elikagai- eta arrantza- eta akuikultura-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko laguntzetarako deialdia egiten da 2024-2025 ekitaldirako (LEHIATU INBERTSIOA programa).

16.978.075 euroko aurrekontu-zuzkidura duen programa bat da, Euskadiko Elikagaien eta Basoen Kateko industrietan, produktuak eraldatzeko prozesuak optimizatzeko eta produktuen merkaturatzea handitzeko, inbertsio-programa baten bidez. Programa hori urte baterako edo bi urtetarako izan daiteke.

Zehazki, helburu hauek dituzte dirulaguntzek:

- Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak.
- Basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak.
- Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak.
- Nekazaritzako eta elikagaigintzako industrietan elikagai ekologikoak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak.
- Nekazaritzako produktuak, arrantzakoak, akuikulturakoak, ur mineral naturalak, alkoholik gabeko edariak edo nekazaritza-produktuetatik hartzitutako edariak, ardoa izan ezik, lortzeko inbertsioak, baldin eta aurreko lerroetako batean ere sartzen ez badira.

Lehiatu Inbertsioa laguntzak nekazariak edo horien elkarteak, nekazaritza-kooperatibek edo nekazaritzako elikagaien enpresek (mikroenpresek eta ETEek) eskatu ahal izango dituzte, baldin eta inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroan (NEIE) sartutako ekoizpen-establezimenduetan egiten badituzte, edo inbertsioak aipatutako erregistroan inskriba daitekeen establezimendu berri bat irekitzeko badira.

Eskaera epea

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera bakarra izango da establezimendu eta jarduera bakoitzeko, eta Euskadiko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoan sartuta aurkeztu ahal izango da. Eskabidea eta eskatutako dokumentazioa izapidetzeko moduari buruzko zehaztapenak esteka honetan egongo dira eskuragarri, agindua EHAAan argitaratu ondoren: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/003421>

Osasuna

OSASUN SAILAK ARABAKO LANDA-EREMUAN FARMAZIA-ARRETA HOBETZEKO PROIEKTU PILOTUA JARRI DU ABIAN

- **Gobernu Kontseiluak gaur goizean onartu du Osasun Sailaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea**
- **“Botika etxean eskura” proiektu pilotua abian jartzearekin Añana eta Arabako Mendialdea eskualdeetan bizi diren herritarrei sendagaiak etxean entregatzen zaizkiela eta haien farmazia-arreta hobetzen dela bermatu nahi da**
- **Osasun Sailak eta Arabako Foru Aldundiak proiektu aitzindari hori finantzatzeko dute urtean 125.000 €-rekin. Eusko Jaurlaritzak 95.000 €-ko ekarpena egingo du**

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Arabako Lurralde Historikoko Añana eta Mendialdea eskualdeetako landa-eremuetan bizi diren biztanleen farmazia-arreta hobetzeko “Botika etxean eskura” izeneko proiektu pilotua ezartzea helburu duen Osasun Sailaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzeari.

Proiektu pilotuaren helburu nagusia da sendagaiak etxean ematen direla bermatzea eta eskualde horietan bizi diren pertsonentzako farmazia-arreta hobetzea, besteak beste. Proiektu horri esker, pazienteak medikuak ezarritako jarraibideen arabera jaso ahal izango ditu agindutako sendagaiak. Horrez gain, sendagaien erabilera berrikusi eta kontrolatuko da, eta sendagaien erabilerarekin lotzen diren emaitza negatiboak prebenitzeko edo saihesteko arazoak identifikatuko dira.

Halaber, programa horrek lagungarria izan nahi du tratamenduarekiko atxikimendua hobetzeko eta dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzeko, batik bat atxikimendua hobetzea beharrezkotzat jotzen den kasuetan. Era berean, Osakidetzako Lehen Mailako Arretako profesionali garrantzitsutzat jotzen diren tratamenduari berari edo pazienteen beste alderdi batzuei buruzko oharren berri ematea sustatuko da.

Proiektu pilotua zuzentzen zaie erreferentziatzeko farmazia dagoen hirigunetik kanpo bizi diren, sendagaiekin laguntza behar duten, mugitzeko eta lekuz aldatzeko zailtasunak dituzten (aldi baterakoak edo iraunkorrak) eta, gainera, irizpide hauetako bat betetzen duten pertsonen: gutxienez 2. mailako mendekotasuna izatea eta/edo gaizki kontrolatutako patologiak izatea eta/edo zaurgarritasun-egoeran egotea.

Proiektu aitzindaria da, eta Arabako landa-eremuko biztanleei sendagaiak etxera eramateaz harantzago, haien arreta eta jarraipen farmakoterapeutikoa hobetu nahi ditu, haien etxean bertan.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolaketa Sailak urtean 125.000 €-rekin finantzatuko dute “Botika etxean eskura” proiektua. Eusko Jaurlaritzak 95.000 €-ko ekarpena egingo du. Sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta bi urteko indarraldia izango du.

Osasuna

**OSASUN SAILAK ABIAN JARRI DITU OSASUNAREN ARLOKO
PROFESIONALEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO JARDUERAK
ANTOLATZEN DITUZTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO
ELKARTEENTZAKO ETA ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZAK**

- **Jarduerak zuzenduko dira bilakaera zientifikoaren eta teknologikoaren aurrean osasunaren arloko profesionalen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eguneratzera eta hobetzera eta osasunaren arloko ikerketa sustatzera**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2024an osasunaren arloko profesionalen etengabeko prestakuntzarako jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako eta erakundeentzako laguntzak deitzeko Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren Agindua.

Jarduerak zuzenduko dira bilakaera zientifikoaren eta teknologikoaren aurrean osasunaren arloko profesionalen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eguneratzera eta hobetzera eta osasunaren arloko ikerketa sustatzera. Hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen formatuak: biltzarrak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, ikastaroak eta lantegiak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak guztira 79.409 euro jarriko ditu aurten laguntza-ildo zehatz horretarako. Laguntza horiek osasun-langileen trebakuntza sustatzeko jardueren barruan daude —Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken ardatz estrategikoetako bat—.

Zehazki, agindua EHAAan argitaratu eta hilabeteko epean eskatu ahal izango diren laguntzak erabiliko dira, batetik, Euskadin osasunaren arloko profesionalen artean jarduera zientifikoaren prestakuntza- eta hedapen-jarduerak antola daitezen finantzatzeko, eta, bestetik, osasunaren arloko langileei prestakuntza eta eguneratze teknikoa ematen dieten edo ikerketa sustatzen duten elkarte eta erakunde horien funtzionamendua finantzatzeko.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK ONKOLOGIKOA OSAKIDETZAN BEHIN BETIKO INTEGRATZEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak onartu du Onkologikoa Euskal Osasun Zerbitzuan, Osakidetzan, behin betiko integratzeko hitzarmena sinatzea.

Hitzarmen horren bidez egituratuko da Onkologikoa izeneko osasun-zentroa Euskadiko Osasun Sistemari integratzeko prozesua. Prozesu hori gauzatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako aurrekontu-legearen xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz egingo den dekretuan ezarritakoaren arabera.

Horrela, osatuko da 1988an, Euskal Osasun Zerbitzuak Institutu Onkologikoarekin egindako ituna bere gain hartu zuenean, hasi zen prozesua. Itun horren ondoren, Osakidetza Pazienteentzako onkologia-zerbitzuen kontratazioa arautzeko sinatutako beste itun batzuk etorri dira eta horiek jada Osasun Sailarekin sinatu dira. Ondoren, onkologia-asistentziaren funtzionamendu integratuagoa ahalbidetuko zuen harreman-eredua aldatzeari ekin zitzaion, pazienteei zerbitzu hobea eskaintze aldera.

Osasun Planari islatzen denaren ildotik, Osasun Sailak, paziente onkologikoen eta haien senideen arretan inplikaturik dauden osasunaren arloko adituen eta profesionalen aholkularitzarekin, 2018-2023 aldirako Euskadiko Onkologia Plana prestatu zuen. Plan horretan definitutako asistentzia-ereduak diziplina anitzeko ikuspegia du, eta pazienteen premia globalei erantzuneko dien tratua humanizatu du ardatz. Plan horren helburua da, halaber, diagnostikorako denborak murriztea eta esku-hartze konplexuak erreferentziazko unitateetan metatzea, behar den esperientzia bildu ahal izan dadin.

2018ko abenduan sinatu zen bi ospitale-egituren funtzionamendu integratua ikuspegi operatibo eta funtzionaletik errazteko lotura-hitzarmena. Akordio horren indarraldia orain amaitzen da, eta Onkologikoa izeneko osasun-zentroa Euskadiko Osasun Sistemari behin betiko integratzeko prozesuari bide ematen zaio.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK GADINGABEKO SEME-ALABENTZAKO ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN UMEZURTZENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DU

- **Urtero emango den laguntza bat da, eta adin-nagusitasunera arte edo 25 urtera arte jasoko da, baldin eta ikasten ari badira, mendekoak badira eta/edo desgaitasunen bat baldin badute**
- **Dekretuaren asmoa da, atzeraeraginezko izaerarekin, 2003tik arau hau indarrean sartu arte asesinatutako amak zituzten seme-alabei ordaina ematea**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duen eta *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legea* garatzen duen dekretua. Laguntza berri horren abiapuntua da adingabe umezurtz horiek emakumeen aurkako indarkeriaren biktima zuzenak direla aitortzea, eta kaltea konpontzen laguntzeaz gain, zaugarritasun-egoera bereziaren ondorioz hildako biktimen seme-alabei ematen zaien laguntza indartzeko betebeharra betetzea ahalbidetzen du.

“Seme-alaba adingabeak ere indarkeria matxistaren biktima dira. Amei eragindako indarkeriaren biktima zuzenak dira, haien ongizate emozionalak eta garapen pertsonalak eragiten eta baldintzatzen baitie”, adierazi du gaur Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak. “Dekretu hau beste urrats bat da indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen adingabeei laguntzeko eta babesteko. Lehen mailako gizarte-arazoak, hau da, emakumeen aurkako indarkeriak, hainbeste kaltetu duen kolektibo horren alde hainbat eremutan aurreikusi diren hobekuntza-neurrien ekintza-eremuan kokatzen da”.

Seme-alaba horiek urtero jasoko duten laguntza ekonomikoa da, 18 urte bete arte. Kasu batzuetan, laguntza horiek 25 urte bete arte luzatuko da: adibidez, ikasketa akademiko arautuak egiten ari direlako edo mendetasuna dutelako edo adin txikitasuna dutenean aitortutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutelako.

Adingabeek 12 hilabeterako Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoaren % 80 jasoko dute urtero, eta balio hori Estatuko Aurrekontu Orokorrekin onartzen da. Gaur egun, 5.760 euro urtean. Gainera, desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen kasuan, zenbatekoa bikoiztu egingo da, 11.520 euroraino.

Laguntza eskatzeko baldintzak:

- Ama hil zen urtean, 18 urte beteta ez izana.
- Laguntza eskatzen den unean 21 urte bete ez izana.

- Laguntza eskatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea eta errolatuta egotea, eta laguntza jasotzen den bitartean etenik gabe, ikasten ari diren bitartean kanpoan errolaturik ez badaude.

Diru-laguntza eskatzeko eta dokumentazioa aurkezteko, bide elektronikoa erabil daiteke, edo, bestela, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan - Zuzenean-, dekretu hori BOEn argitaratzen denetik aurrera (zehaztu gabe).

2003tik

Gainera, dekretuak ohiz kanpoko neurri bat aurreikusten du: 10.000 euroko ordainketa bakarra, atzerako eraginarekin, 2003ko urtarrilaren 1az geroztik amarik gabe geratu diren guztiei. Azken hori indarkeria matxistagatik hil izatea, eta umeak adingabeak izatea horren unean. Pertsona horiek bi urteko epea izango dute laguntza eskatzeko. 2003ko urtarrilaren 1a hartu da erreferentziazat, orduetik aurrera hasi baitziren kontatzen genero-indarkeriaren biktimak.

Eragindako kaltea konpontzeko baldintzak:

- Ordainketa bakarreko laguntza hau dekretua onetsi eta lehenengo bi urteetan emango da.
- Ama hiltzen denean adingabekoa izatea.
- Amaren heriotza 2003. urtetik dekretua onartu arteko epearen barruan egon behar da.

Benetako bizilekua eta errolda Euskadin.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

IREKI DA EUSKO JAURLARITZAKO GIZA ESKUBIDEEN, BIKTIMEN ETA ANIZTASUNAREN ZUZENDARITZAK SUSTATUTAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak bultzatutako hainbat laguntza onartu ditu gaur, 1.650.000 euroko balioarekin. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak proposatuta, laguntza hauek tokiko, hezkuntzako eta herritarren partaidetzako eremuetan bizikidetza sustatzera bideratuta daude, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeei, udalerriei eta Euskadiko gainerako toki-erakundeei ere.

Elkarrekin Bonuen Programaren deialdiak 500.000 euroko aurrekontua du, hiru esparrutan banatuta: hezkuntza (250.000 euro), tokiko bizikidetza (150.000 euro) eta herritarren parte-hartzea (100.000 euro). Laguntza horiek irabazi-asmorik gabeko erakundeen, hezkuntzarekin lotutako erakundeen, udalen eta herritarren parte-hartzearekin lotutako erakundeen arteko baterako proiektuak finantzatzeko dituzte.

Dirulaguntzak ekarpen ekonomiko gisa emango dira prestakuntza edo dinamizazioa zerbitzuen ordu justifikatu bakoitzeko, hainbat arlotan: bakearen kultura, giza eskubideak, biktimekiko elkartasuna, adiskidetzeta eta gatazkak konpontzea.

Bestalde, irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzek 900.000 euroko zuzkidura ekonomikoa izango dute, eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek garatutako proiektuak finantzatzeko dira, gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideen errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura sustatzen dutenak.

Ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengoa, zenbatekoaren % 75, laguntza onartzeko behar den epea igaro eta berehala egingo da, eta bigarrena, gainerako % 25a, helburua bete dela justifikatu ondoren.

Azkenik, Euskadiko udalerrientzako eta gainerako toki-erakundeentzako laguntzak Euskadiko udalerriek eta toki-erakundeek garatutako proiektuak finantzatzeko dira, gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideen errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura sustatzeko.

Diru-zuzkidura 250.000 eurokoa izango da, eta ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengoa (% 50), laguntza onartzeko behar den epea igaro eta berehala; eta bigarrena, gainerako % 50a, laguntzaren helburua bete dela justifikatu ondoren.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGOENTZAKO DIRULAGUNTZA ONARTU DA DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Nerea Melgosaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak dirulaguntza onartu dio gaur Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei, doako laguntza juridikoa emateko emakumearen aurkako indarkeriaren, familia barruko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei, eta indarkeriaren biktima diren haurrei, nerabeei eta pertsona desgaituei.

Aurten, hitzarmen berri bat izapidetu da indarkeriaren biktima diren haurrei, nerabeei eta pertsona desgaituei berehalako doako laguntza juridikoa emateko, lege-aldaketa garrantzitsuak indarrean sartu direlako.

Akordio honek dirulaguntza ematen die Arabako (460.000 €), Bizkaiko (1.104.000 €) eta Gipuzkoako (736.000 €) abokatuen elkargoei, 2024an hitzarmen horretan aurreikusitako jarduerak ekonomikoki konpentsatzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 3,7 MILIOI EUROKO DIRULAGUNTZAK ONARTU DITU EUSKARA IKASTEKO DOAKOTASUNA FINANTZIATZEKO

- **Euskara ikasleek maila guztietan (A1etik C2ra) izango dituzte dirulaguntzak lortzeko aukera**

Eusko Jaurlaritzak 3.775.500 euroko partida onartu du, bere gaurko Gobernu Kontseiluan, Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegietako ikasleen euskara ikasteko prozesua diruz laguntzeko. Honen bitartez, ikasketak doan izateko Jaurlaritzak hartu zuen konpromisoari erantzunez, diruz lagunduko dira A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 lortzen dutenak.

Guztira 3,7 milioi bideratuko dira, honela banatuta:

- 3.725.000 € A1, A2, B1 eta B2 mailetarako, eta 30 urte beteak edo gazteagoak diren ikasleentzat C1 mailarako (1994 urtean edo ondoren jaiotakoak).
- 50.000 € 30 urtetik goragoko ikasleentzat C1 mailarako eta guztientzat C2 mailarako.

